Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko ekainaren 10a, asteazkena — 108 — Miércoles, a 10 de junio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IRUNGO UDALA

*Jose Antonio Loidi Beka 2020. BDNS (Identif.): 508888*

Irungo Udalaren Alkatetzaren ekainaren 2ko 0505/2020 ebazpenaren laburpena, Jose Antonio Loidi 2020 Ikerketa Bekarako deialdia onesten duena.

Diru-laguntzaren 38/2003, azaroaren 17ko Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, argitaratzen da deialdiaren laburpena. Honen testu osoa Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalean (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans) eta Irungo Udalaren internet atarian (www.irun.org) kontsulta daiteke.

*Lehenengoa. Xedea.*

Euskarazko Ikerketa Bekarako deialdia, antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika esparruetan, norbanakoei nahiz taldeei zuzendua.

*Bigarrena. Onuradunak.*

Beka, norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, (nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak) ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da unibertsitate gradua edo lizentziatura edukitzea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hau.

Eskatzaileak bere euskarako gaitasuna frogatu beharko du EGA edo baliokide den titulu edo diploma bidez (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa). Lantaldeen kasuan, denek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

Ez dute onuradun izaera izango Subentzioak arautzen dituen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoak.

*Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:*

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2017ko ekainaren 29an, 124 zenbakia.

*Laugarrena. Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Jose Antonio Loidi Beka 2020rako diru kopurua 9.000 eurokoa da, 1.1010.481.01.335.30 2020 «Ikerketarako saria, bekak, euskara ekim» aurrekontu aplikazioaren bizkar eta A-0364/2020 kontabilitate dokumentuari egotzita.

*Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 2020ko urriaren 2a arte aurkeztu ahalko dira.

Eskaera, beharreko datu eta dokumentazio osagarriarekin, www.irun.org/sac Irungo Udalaren Egoitza Elektronikoan aurkeztuko da edo 39/2015 Legean, urriaren 1ekoa, Administrazio

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

*Beca Jose Antonio Loidi 2020. BDNS (Identif.): 508888*

Extracto de la Resolución n.º 0505/2020, de 2 de junio de 2020, de la Alcaldía del Ayuntamiento de Irun, por la que se aprueba la convocatoria para la Beca de Investigación José Antonio Loidi 2020.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans) y en el Portal de Internet del Ayuntamiento de Irun www.irun.org.

*Primero. Objeto.*

Convocatoria de Beca de Investigación en euskera en los campos de antropología, filología, toponimia, literatura, sanidad pública, hidrología y botánica, para las personas físicas a título individual o grupos.

*Segundo. Beneficiarios.*

Podrán solicitar esta beca personas físicas a título individual o grupos formados a tal efecto. En este supuesto (agrupaciones de personas físicas sin personalidad jurídica) se nombrará un director o directora responsable del trabajo de investigación.

Para poder acceder a la beca es imprescindible tener un grado o licenciatura universitaria. En el caso de los grupos, por lo menos la mitad de los miembros deberá cumplir el mencionado requisito.

El o la solicitante deberá justificar su aptitud en euskera mediante el título EGA, otro título equivalente o diploma correspondiente (Marco Europeo de Referencia para las Lenguas). En el caso de los grupos todos los miembros deberán cumplir el mencionado requisito.

No podrán obtener la condición de beneficiario/beneficiaria los y las que incurran en alguna de las circunstancias previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 General de Subvenciones.

*Tercero. Bases reguladoras.*

Publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 29 de junio de 2017, n.º 124.

*Cuarto. Dotación económica.*

La dotación económica para la Beca José Antonio Loidi 2020 es de 9.000 euros imputables a la aplicación presupuestaria 1.1010.481.01.335.30 2020 «Premios, becas, promoc. actividades eusker» y al documento contable A-0364/2020.

*Quinto. Plazo de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, hasta el 2 de octubre de 2020.

La solicitud, acompañada de los datos y documentación complementaria correspondiente, se presentará en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Irun www.irun.org/sac o en las oficinas

EK\CV GAO-I-2020-02535

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetan.

Irun, 2020ko ekainaren 3a.—Idazkaritza eta Zerbitzu Juridikoen teknikaria. (2535)

que se mencionan en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Irun, a 3 de junio de 2020.—La técnica de Secretaría y Servicios Jurídicos. (2535)

EK\CV GAO-I-2020-02535